


DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 1 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4ADEFC97DEE5A9AEDCF3F5A08C831298E9) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_codi=28en\_Ud=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
Laudio/Llodio  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

## 5. ORDENANTZA FISKALA

# HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

### AURKIBIDEA:


<b>I. Xedapen orokorrak</b> 1 eta 2 artikulua
<b>II. Zerga egitatea</b> 3 artikulua
<b>III. Zergaperik eza</b> 4 artikulua
<b>IV. Salbuespenak eta hobariak</b> 5 eta 6 artikulua
<b>V. Subjektu pasiboak</b> 7 artikulua
<b>VI. Zerga oinarria</b> 8 artikulua
<b>VII. Zerga kuota</b> 9 artikulua
<b>VIII. Zergaren sortzapena. noiz eta zergatik sortzen den</b> 10 artikulua
<b>IX. Kudeaketa</b> 11tik 17ra artikulua
<b>X. Lehenengo xedapen gehigarria</b>
<b>XI. Bigarren xedapen gehigarria</b>
<b>XII. Xedapen iragankorra</b>
<b>XIII. Azken xedapena</b>

## 5. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udaltzazak 2022/02/28 eguneko osoko bikura erabakiz  
 Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 202203/09 eguneko 29 zk.an  
 Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2022/04/26  
 Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2022/05/25 eguneko 60 zk.an  
 Indarrean sartu: 2022/05/26

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
 ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
 Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 2 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F8AADEF097DEE5A0EDCF3E5A08CE31298E9) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegozitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pos\_cod=28en\_U=29&idtomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

## 5. ORDENANTZA FISKALA

# HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. Artikulua

Laudioko Udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailean eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorritz, Hiri Izaerako Higiezinaren Balio Gehitzearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bategina ezartzen eta eskatzen du Hiri Lurren Sorkuntza Zergak.

#### 2. Artikulua

Ordenantza hau Laudioko udal barruti osoan aplikatuko da.

### II. ZERGA EGITATEA

#### 3. Artikulua

Zerga honen zerga egitatea hiri lurrek zergaldian izan duten balio gehikuntza da, baldin eta lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen bada edo lur horiek edukitzeko jabariaren mugatzaile den edozein ondasun eskubide sortu edo eskualdatzen bada.

### III. ZERGAPERIK EZA


#### 4. Artikulua

1. Ez da zerga honen menpe egongo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan landa lurreko ondasun higieztantz hartuko diren landa lurrek izan dezaketen balio gehitzea.

2. Ezkontideek ezkontzako sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpen, esleipen eta egiaztatzen diren horien ordainketen eta ezkontideek euren ondasun komunaren ordaintzeko transmisio kasuak ez dira zerga honen objektu ezgarri izango.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 3 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F8AADEF097DEE5A0EDCF3E5A08C83129659) generada con la aplicación informática Firmador. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udaliragotziza.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_codi=2&ent\_Lu=29&id\_toma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

Aurreko paragrafoan aipatutako kasu berdinetan, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideek egindako ekarpen, esleipen eta transmisioei neurri berdina ezarri eta aplikatuko zaie.

Halaber, ez dira zergaren objektu izango ezkontideen artean, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideen artean, edo euren seme-alaben aldeko transmisio kasuetan, beti eta baliogabetze, bereizte edo ezkontzaren dibortzio, edo izatezko bikotea iraungitzeko epiaik betetzearen ondoriozko ondasun higiezinaren transmisio kasuak, zeinahi dela ere ezkontzako ekonomia araubidea edo ondarearen ekonomia araubidea.

3. Ez dira zergaren pean egongo lurren eskualdatzeak baldin eta egiaztatzen bada ez dela balio gehikuntzarik egon lur horien eskualdatze datako balioaren eta erosketak datako balioaren arteko aldeetatik.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela egon egiaztatu nahi duen interesdunak eskualdatzea aitortu beharko du eta eskualdatzea eta erosketak dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu beharko ditu. Horren ondorioetarako, interesduntzat joko dira ordenantza fiskal honen 7. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak.

Balio gehikuntzarik ez dela egon egiaztatzeko, lurren eskualdatze edo erosketak balio hartuko da kasu bakoitzean balio hauetatik handiena, baina horren ondorioetarako ez dira kontuan hartuko eragiketa horiek zergapetuko dituzten zergak edo gastuak: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, hala dagokionean, eskudun den zerga administrazioak egiaztatutakoa.

Baldin higiezin bat eskualdatzen bada eta lurzorua eta eraikuntza biak badaude, honako hau hartuko da lurzorua balio hartuko da: zergaren sortzapen datan lurzorua katastro balioak guztizko katastro balioarekiko adierazten duen proportzioa aplikatzearen emaitza, eta proportzio hori eskualdatze balioari zein, egoki bada, erosketak balioari aplikatuko zaio. Proportzio hori bi dezimalekin adierazi behar da.

Erosketak edo eskualdaketa irabazia badakar, aurreko paragrafoetan ezarritako arauak aplikatuko dira, eta lehen aipatutako bi balio alderagarrietatik lehenengotzat hartuko da oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa, egoki denean.

Apartatu honetan aipatzen diren higiezinak ondoren eskualdatzean, lurren balio gehikuntza izan den urte kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko erosi aurreko aldia. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko artikulua honen 3. apartatuak edo Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Aruaren xedapen gehigarrietatik hemezortzigarrenak xedatutakoari jarraituz zergapetu behar ez diren ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdatzeen kasuetan.

## IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK


### 5. Artikulua

1. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude hurrengo egintzen ondorioz sortzen diren balio gehikuntzak:

a) Edozein zortasun eskubideren eraketa eta eskualdaketa.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (eusquera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 4 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4ADEFC97DEE5A9EDCF3E5A08CE31296E9) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://dialnetegoliza.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_codi=2&ent\_L=29&id=oma1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

b) Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikuluko 1. idatz-zatiko k) letran jasotako salbuespena aplikatu behar zaien ondasun-eskualdaketak, baldin eta horien jabeek edo eskubide errealek titularrek egiaztatzen badute higiezin horiek kontserbatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko obrak beren kargura egin dituztela.

2. Balio gehikuntzak zerga hau ordaintzetik salbuespena daude, zerga ordaintzeko betebeharra hurrengo pertsona edo erakundeetara dagokienez:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, Estatuko Erakunde Autonomoak eta baita Lurralde Administrazio horietako izaera bereko zuzenbide publikoaren arlokoak diren erakundeak ere.
- b) Zerga ezartzen den Udalerria eta gainerako udala sartuta dagoen edo udalean sar daitekeen gainerako Udala Erakundeak, hala nola Estatuko Erakunde Autonomoen pareko izaera bereko zuzenbide publikoaren arloko euren dagozkien erakundeak ere.
- c) Ongile edo ongile-irakaskuntzarako kalifikazioa duten erakundeak.
- d) Gizarte Segurantzaren kudeatzen duten erakundeak eta indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera osatu diren mutualitate eta montepioak.
- e) Bueltatu beharreko emakida administratiboen titularrak emakida horiei loturiko lurrekoak.
- f) Gurutze Gorriarenak eta araudian zehazten diren beste Erakunde parekagarriak.
- g) Nazioarteko itun edo hitzarmenak direla bide zerga ordaintzetik salbuespena dauden subjektu pasiboak.

## 6. Artikulua

Zerga honen kuota osoaren % 50 hoberia egitea erabaki da, ondorengoan eta adoptatuen, ezkontearen alde, edo izateko bikotekideen alde, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera erabakitako bikoteen kasuan, irabazpide titulu bidez heriotza kausa higiezinaren transmisioetan eta gozatu eta probetxua izateko jabaria mugatzen duten gauzen gaineko eskubideen transmisioan edo eraketan.

## V. SUBJEKTU PASIBOAK


### 7. Artikulua

1. Hau da zergaren subjektu pasiboa, zergadun gisa:

- a) Lurren eskualdaketetan edo jabariko doako gozamen mugatzaileen eskubide errealek osaketan edo eskualdaketetan, pertsona fisikoa, juridikoa eta urriaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikuluko 3. idatzi-zatian aipatzen dituen entitateak, baita testamendu ahalordea edo

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 5 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudioiko Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudioiko Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8FAADEF097DEE5A0EDCF3E5A08CE31296E9) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_codi=2&ent\_LU=29&idtomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabariko doako gozamen mugatzaileen eskubide errealen osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoa, juridikoa eta urriaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikulua 3. idatzi-zatian aipatzen dituen entitateak, baita testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

2. Aurreko idatzi-zatiko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, hauek hartuko dira zergadunaren subjektu pasibotzat; pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikulua 3. idatzi-zatian aipatzen dituen entitateak, baita testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Profesionalki hipoteka-mailegu edo hipoteka-kredituak ematen dituen erakunde bati hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematearen edo hipoteka betearazte judizialaren edo notarialaren ondoriozko eskualdaketetan, zergadunaren ordeko subjektu pasibotzat joko da higieztina eskuratzen duen erakundea, eta ordekoak ezin izango dio eskatu zergadunari ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa.

Idatzi-zati honen ondoretarako, hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematea zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorrak bermatzeko abal-emaile izaera izanda egiten den kasuetan ere aurrekoa aplikatuko da.

Idatzi-zati honetan aurreikusitako ondoreak gerta daitezten, zordunak, bermatzaile eskualdatzaileak, abal-emaileak edo familia unitateko beste ezein kidek ezin du izan hipoteka-zorra osoa edo zati bat ordaindu ahal izateko moduko beste ondasun edo eskubiderik etxebizitza besterentzea eragotzi ahal izateko unean. Betekizun hori betetzen dela emantzat joko da.

Idatzi-zati honetan aurreikusitako ondoretarako, ohiko etxebizitza gisa hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren urtarrilaren 29ko 3/2008 Foru Arauaren 87. artikuluko 8. idatzi-zatian hala definitzen dena.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Ondore horietarako, baliokide izango dira ezkontzak eta maiatzaren 7ko 2/2003 Eusko Legebiltzarraren Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikoteak.


## VI. ZERGA OINARRIA

### 8. Artikulua

1. Zerga honen zerga-oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere hogeituro urteko epean izandako lurren balio-gehikuntzak osatzen du, eta artikulua honen 4. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe zehaztuko da, sortzapenaren unean lursailak duen balioa, hurrengo 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatu, 3. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera sortze-aldiari dagokion koefizientearekin biderkatuta.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 6 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4ADEFC97DEE5A9AEDCF3E5A08CE31296E9) generada con la aplicación informática Firmador. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegozializa.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_codi=2&ent\_ud=93&idtomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

2. Lurrek sortzapen unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

- a) Lurren eskualdaketetan, lursailak sortzapen egunean duten balioa une horretantxe ondasun higiezinaren gaineko zergarako ezarrita dagoen berbera izango da. Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren araubidean dauden higiezinaren lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio salmenta prezioari.
- b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratzean eta eskualdatzean, artikulua honen 3. apartatua jasoriko urteko ehunekoak aurreko a) letran zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio. Zati hori aipatutako eskubideen balioaren adinakoa izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.
- c) Eraikin edo lursail baten gainera solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpitik eraikitzeko eskubidearen sorreran eta eskualdaketan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, artikulua honen 3. apartatua ezarritako urteko ehunekoak aplikatuko dira, hain zuzen ere, aurreko a) letran zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluen adinakoa, eta hori ezin bada, gorantz edo lur azpian eraikitzeko diren solairuen zabalaren edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoak zehaztu ondoren aterako dena, solairuak eraiki ondoren.
- d) Nahitaezko desjabetzeetan, artikulua honetako 3. apartatua jasotako urteko ehunekoak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta 2. apartatua honetako a) letran zehaztutako balio txikiagoa bada, kasu horretan balio hori hartuko baita ontzat eta ez balio justuaren zatia.

3. Balio-gehikuntza sortzeko aldia gehikuntza hori agerian geratu den urte kopurua izango da.

Zergapetu gabeko kasuetan, foru arauak besterik esaten ez badu behintzat, lurraren ondorengo eskualdaketan batean azaldutako balio gehikuntzaren sortzapen aldia kalkulatzeko, aurreko zerga sortzapena gertatu zen data hartuko da erorsketa datatzat, aurreko paragrafoaren xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, ez dira urte zatiak zenbatuko. Baldin sortzapen aldia urtebete baino laburragoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, ez dira hilabete zatiak zenbatuko.


Sortzapen unean lurra duen balioari aplikatu beharreko koefizientea (aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera kalkulatu), balio-gehikuntzaren sortze-aldiaren arabera dagokiona izango da; horretarako, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen irailaren 29ko 4/2021 Foru Dekretu Arauemailean tarte bakoitzerako ezarritako gehieneko mugak aplikatuko dira.

Hauek dira gehieneko mugak:

Sortza-aldia	Koefiziente
Urte 1 baino gutxiago	0,14
1 urte	0,13

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 7 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4AEFC97DEE5A0EDCE3F5A08CE31296E9) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalinfo.gizta.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_cod=2&en\_L=2&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

Sortza-aldia	Koefiziente
2 urte	0,15
3 urte	0,16
4 urte	0,17
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,10
15 urte	0,12
16 urte	0,16
17 urte	0,20
18 urte	0,26
19 urte	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

Gehieneko koefizienteak automatikoki eguneratuko dira, eta zuzenean aplikatuko dira, foru-arau bidez urtero eguneratzen direnean.

Aurreko paragrafoan aipatutako eguneratzearen ondorioz, indarreko Ordenantza Fiskalak onartutako koefizienteetako bat dagokion legezko gehieneko berria baino handiagoa bada, hura zuzenean aplikatuko da soberakin hori zuzentzen duen udal-arauaren aldaketa indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak eskatuta, Ordenantza fiskal honen 8. artikulua 1. apartatua ezarritako prozeduraren arabera, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikulua honen aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

## VII. ZERGA KUOTA

### 9. Artikulua


Zerga kuota izango da zerga-oinarriari zerga-tipoa aplikatzearen emaitza; zerga-tipo hori % 7,60 izango da.

## VIII. ZERGAREN SORTZAPENA. NOIZ ETA ZERGATIK SORTZEN DEN

### 10. Artikulua

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 8 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4AEFC97DEE5A0EDCF3E5A08C83129659) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portala/verificarDocumentos.do?pos\_codi=2&ent\_Lu=29&idIboma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

1. Zerga sortzen da hurrengo kasuetan:

- a) Lurraren jabetza, kostu bidez edo dohainik, bizidunen artean edo heriotzgatik eskualdatzen denean, eskualdaketaren egunean.
- b) Jabariaren mugatzaile den eduki ondasun eskubideren bat eratzen edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

Aurrean xedatutakoaren ondoretarako, eskualdaketaren eguntzat hartuko da:

- a) Bizidunen arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiri pribatuen kasuan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatzen den eguna edo lanbideagatik funtzionario publiko bati ematen zaizkion eguna.
- b) Heriotzgatik egiten diren eskualdaketetan, kausatzailearen heriotzaren eguna.

2. Lurraren eskualdaketa edo lur hori edukitzeko ondasun eskubidearen eraketa edo eskualdaketa zehaztu duen egintza edo kontratua deuseztatu, hutsaldu edo suntsiarazi dela judizio bidez edo administrazio bidez eta eabazpen finkoz, irmoz adierazi edo onartzen denean, ordaindu duen zerga berriz jasotzeko eskubidea izango du subjektu pasiboak, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazizko efekturik sortarazi ez badio eta diruaren itzulketa eabazpena irmo geratu denetik zenbatu beharreko bost urteko epean erreklamatzeko bada. Irabazizko efektua egon dela ulertuko da, interesatuek Kode Zibilaren 1295. artikulua aipatzen dituen elkarrekiko itzulketak egin behar dituztenik bidezkatzen ez denean. Egintza edo kontratuak irabazizko efekturik sortarazi ez badu ere, zergaren subjektu pasiboak bere betebeharrak bete ez izanagatik hutsaltzea edo suntsiarazpena adierazten bada, ez da itzulketarik egingo.

3. Alderdi kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez kontratua ondorerik gabe geratzen bada, ordaindu den zergaren itzulketa ez da bidezkoa izango eta zerga ordaintzera loturik dagoen egintza berritatzat hartuko da. Elkarren adostasunez egin denez, adiskidetzako ados jartzea eta eskariari amore ematea estimatuko dira.

4. Egintza edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, baldintza horiek Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Etendurazkoa denean, zerga ez da likidatuko etendurazko baldintza bete arte. Baldintza amaiarazpenekoa bada, baldintza betetzean eskatuko da zerga ordaintzea, eta erreserban utziko da, aurreko idatzi-zatiko araua betetzen bada erreserban utzitako zenbatekoa itzuli ahal izateko.


Testamendu ahalorde edo botere osoko gozamen bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga sortuko da ahalordea edo botere osoko gozamina modu ezeztazinean erabiltzen direnean edo hura amaiarazteko duen arrazoiatariko bat izaten denean.

5. Baldin eta botere osoko gozamenetan edo testamentu ahalordeetan pertsona jakin bati eman bazaio bizi artean herentziak ondasunez gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamenduak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local



DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 9 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4AEFC97DEE5A0EDCF3E5A08C53129659) generada con la aplicación informática Firmador. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalirreguliza.araba.eus/portafirmas/verificarDocumentos.do?pos\_codi=2&ent\_ud=93BIP-1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

Baldin eta botere osoko gozamenetan edo testamentu ahalordeetan gozamena amaiarazten bada botere osoko gozamen edo testamentu ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamenduak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehenengo likidazioa kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Testamentu ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, orde, lehenengo likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalorde hori erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epearen arabera.

b) Beste likidazio bat botere osoko gozamena edo testamentu ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Aurreko likidazioarengatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Aurreko b) letran aipatzen den likidazio hori eta botere osoko gozamena edo testamentu ahalordea erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

6. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen arabeko xedapen egintzen ondorioz testamentu ahalordea edo botere osoko gozamena noiz baliatu zain dauden herentzietan dagozkien lurren eskualdaketei Foru Arauan ezarritako xedapen orokorrak aplikatuko zaizkie, betiere, eskualdaketa horrek ez badakar oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapenik, eta honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko idatz zatian aipatzen diren eskualdaketei dagozkien zergaren subjektu pasibotzat joko da testamentu ahalordea edo botere osoko gozamena noiz erabili zain dagoen herentzia, eta zergaren sortzapena eskualdaketa ulean gertatuko da.


b) Zergaren tributu kuota zehazteko, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabeko sortzapenarekin, eskualdaketa ulean gertatuko dena, eta gozamendunak likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuko da, hori guztia Foru Arauaren 8. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

Testamendu ahalordea edo botere osoko gozamena noiz baliatu zain dagoen herentziak eskuratutako lurren eskualdaketa egiten direnean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren ondorioz, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabeko sortzapenarekin.

c) Testamendu ahalordea edo botere osoko gozamena modu ezeztazinean erabiltzen baldin bada edo hori amaiarazteko arrazoiren bat gertatzen baldin bada, eta, ondorioz, testamendu ahalordea edo botere osoko gozamen ahaldua noiz erabiliko zain badago, jaraunspenak eskuratutako lurren eskualdaketa gauzatzen denean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak xedatutakoaren ondorioz, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, biziarteko edo aldi baterako gozamenari buruzko arauen pean, testamentu ahalordea edo botere osoko gozamena noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren ondorioz gozamenak daukan izaeraren arabera. Aldi berean egingo dira

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 10 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudioko Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8FA4DEF097DEE5A0EDCF3E5A08C831298E9) generada con la aplicación informática Firmador. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udaliragotziza.araba.eus/portala/verificar/Documentos.do?pos\_codi=28en\_LU=28&idtomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

likidazioa eta testamendu ahalordea edo botere osoko gozamina erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa.

d) Zerga honen ondoretarako, xedapen hauek izango dira aplikagarri: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren hirugarren idatzi-zatian jasotako xedapenak.

## IX. KUDEAKETA

### 11. Artikulua

Subjektu pasiboak beharturik daude zergaren aitorten egokia Laudioko udal administrazioan aurkeztera; aitorten hori Laudioko udal administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera egin beharko da eta kuota zehazteko beharrezko eta ezinbesteko diren zergaren zerrendako elementuak eta gainerako datuak izango ditu. Ordainketa aitortena aurkezteko unean eta egintzan bertan, aldi berean, egin beharko da.

### 12. Artikulua

Zerga sortzen den egunetik zenbatzen hasita, aitortena aurkeztu eta ondoriozko kuota ordaindu hurrengo epeetan egin beharko da:

- Bizidunen arteko egintzak direnean, epea 30 laneguneko izango da.
- Heriotzarengatik egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetera arte luzatu ahal izango delarik subjektu pasiboak eskatuta.

### 13. Artikulua

- Aitortpenarekin batera, zergapetzea sortarazten duten egintzak edo kontratuak agerrarazten dituen agiria behar bezala kautotu eta benetakotarik aurkeztu beharko da.
- Eskatu nahi diren salbuespenak edo hobariak ere agiri bidez bidezkotu beharko dira.


### 14. Artikulua

Laudioko Udal administrazioak pertsona interesatuak eskatu ahal izango die hogeita hamar eguneko epean, edo interesatuak eskaturik beste hamabost egun gehiagotan, zergaren likidazioa burutzeko beharrezkotzat hartzen dituzten beste agiri batzuk aurkezteko; udal administrazioak epe horien barruan egiten dituen agindeiei jaramonik egiten ez dietenek zerga urratzea egingo dute eta, beraz, zehapen egokiak izango dituzte, baldin eta agiri horiek aitortena bidezkozteko beharrezkoak badira. Agiri horiek interesatuak bere buruaren onerako azaldu dituen inguruabarrak bidezkozteko baino aurkeztu ez badira, agindeia bete ez bada ere, likidazioa egingo da, azaldutako baina bidezkotu gabeko inguruabarrak kontutan hartu gabe.

### 15. Artikulua

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 11 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8FAADEF097DEE5A9AEDCF3E5A08CE31296E9) generada con la aplicación informática Firmado. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalarenegitza.araba.eus/portala/verificar/Documentos.do?pos\_codi=2&ent\_Lid=29&idtomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

13. artikuluan xedatutakoa gora-behera, hurrengoak ere beharturik daude subjektu pasiboen epe berdinetan Laudio Udalari zerga egitatearen berri ematera:

- a) Zerga ordenantza fiskal honen 7.1 artikuluko a) letrako kasuetan, baldin eta bizidunen artean negozio juridikorik egon bada, emailea edo ondasun eskubidea eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.
- b) Aipaturiko 7.1 artikularen b) letrako kasuetan, eskuratzailerak edo ondasun eskubidea eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

### 16. Artikulua

Halaber, notarioak behartuta daude Laudio Udalari, egutegiko hiruhileko bakoitzeko lehen hamabostaldi naturalaren barruan, egutegiko aurreko hiruhilekoan eurek baimendu dituzten agirien zerrenda edo indizea igortzera; notarioek baimenduriko agiri horietan, Laudioko udal mugarte honetan zerga honen zerga egitatea egin dela agerrarazten dituzten ekintzak, egintzak edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondateko egintzak salbu. Halaber, beharturik daude igortzera epe berean ekintza, egintza edo negozio juridiko berberak azaltzen dituzten agiri pribatuak, sinaduren ezagutza edo legitimotzat hartzeko aurkeztu izan zaizkionak. Artikulu honetan azaldutako guztia Lurralde Historikoko Tributu eta Zerga Foru Arau Nagusian ezarritako lankidetzarako betebeharraren kalterik gabe ezarri dela ulertzen da.

Notarioek Laudio Udalari bidaliko dioten zerrendan edo aurkibidean jasota adierazi behar dute ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia, erreferentzia hori eskualdatzearen objektu den higiezinarekin bat datorrenean.

Baimenduko dituzten dokumentuetan notarioek beren beregi oharraziko diete bertaratutakoei zein eperen barruan behartuta dauden interesatuak zerga honen aitortpena aurkezteko, baita ere, aitortpenen aurkezpen faltagatik zeintzuk izango diren aurre egin beharreko erantzukizunak.

### 17. Artikulua

1. Laudio Udalak 14. artikuluan esandako epeen barruan aitortu ez diren zerga egitateak egin direla jakiten badu, interesatuei aitortpen hori egiteko aginduko die, egin diren zerga urratzeen eta arau-hausteen eta kasu horietan bidezkoak diren zehapenen kalterik gabe.


2. Laudio udal administrazioak lehen ezarri diren agindeiak bideratzen baditu eta interesatuek aitortpena aurkezten ez badute, ofizioko espedientea zabalduko da eskuetan dituen datuekin, bidezkoa den likidazioa egingo da eta, hala denean, bidezkoak diren errekurtsioak aurkezteko eta azaltzeko epeak azalduko dira, egin diren zerga urratzeen eta kasu horretan bidezkoak diren zehapenen kalterik gabe.

## X. LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

9.b) artikulua xedatutakoaren ondorioetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga onesten dituen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, honako arauak bete behar dira:

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 12 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udala. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udala. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4ADEFC97DEE5A9EDCF3E5A08CE31129659) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalwebgizila.araba.eus/porta/verificar/Documentos.do?pos\_cod=2&ent\_Lid=29&idToma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

**Lehena.-**

- a) Aldi baterako erabili eta fruituzko gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportziozkotzat joko da, urtealdi bakoitzeko % 2, % 70 gainditu gabe. Aldi baterako erabili eta fruituzko gozamenaren balioa ondasunen balioaren zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko urtea baino zati txikiagoak, alabaina urtea baino epe laburragoa izan dezaketen erabili eta fruituzko gozamenak eskubidearen jatorri diren ondasunen % 2ko balioa izango dute.
- b) Bizi arteko erabili eta fruituzko gozamenetako balioa jatorri-ondasunen balio osoaren % 70 izango da gozameduna 20 urtetik beherakoa denean, eta adina gehitu ahala urtean % 1 gutxitu egingo da, balio osoaren % 10 muga duela.
- c) Pertsona Juridiko baten aldeko gozamena, mugagabea edo 30 urterako baino gehiagorako, zergari dagokionean baldintza suntsiarazleari lotutako jabetza osoko eskualdaketatzat hartuko da.

**Bigarrena.-**

Jabetza soilerako eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko kendura izango da. Bizi artekoak eta, aldi berean, aldi baterakoak diren gozamenetan jabetza soila baloratzeko aurreko lehenengo zenbakiaren araua ezarriko da, balio gutxien ematen diona.

**Hirugarrena.-**

Erabilera eta biztantzeko eskubide errealean balioa aldi baterako eta bizi arteko gozamenen balorazioari dagokion arauak ezarri ziren ondasunen balioaren % 75 ezartzearen ondoriozkoa izango da.

**XI. BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 epaiaren, 2021eko urriaren 26koaren, ondoriozko araubide aplikagarria.**

Ez dira berrikusiko zerga honek sortutako zerga betebeharrak, baldin eta, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko 182/2021 Epaia eman zen egunean, gauza epaituaren indarra duen epai bidez edo administrazio ebazpen irmo bidez behin betiko erabaki badira.


Ondorio horietarako soilik, kontsolidatutako egoeratzat hartuko dira, halaber, aipatutako epaia eman den egunean aurkaratu ez diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak, bai eta, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera, egun horretan zuzentzeko eskatu ez diren autolikidazioak ere.

**XII. XEDAPEN IRAGANKORRA**

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegintzazkoaz onartu zen Toki Erregimenaren arloan indarren dauden legezko xedapenen Testu Bategineko 350.1 artikuluko b) modalitatekoa izango da zergaren ezarpen aldia. Modalitate horretan Erakunde batek egindako konturako ordainketa guztiek ordenantza honetako 12. artikuluan xedatutakoa betez sortutako azken kitapena edo likidaziotiko kenketa eragingo dute.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 5 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>93BIP-KLMI-151BK</b> Página 13 de 13	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Arantza Lili Salazar, Idazkaria / Secretario/a General, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 08:49 2.- Ander Añibarro Maestre, Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente, de Laudio Udal. Firmado 25/05/2022 10:28	ESTADO <b>FIRMADO</b> 25/05/2022 10:28



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 572086 93BIP-KLMI-151BK 90E8F4ADEFC97DEE5A0EDCF3FEA08CE31298E9) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: [https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pos\\_cod=28en\\_LU=29&idoma=1](https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pos_cod=28en_LU=29&idoma=1)



Herriko Plaza, z/g  
01400  
Laudio/Llodio  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFZ/NIF: P01038001

### XIII. AZKEN XEDAPENA

Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2022ko otsailaren 28 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko apirilaren 26 egunean. Indarrean jarriko da 2022ko maiatzaren 26 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local